

Lehorra eta Hezea

(THE SOCIAL LIFE OF THE BOOK)

GRISETIK BERDERA

Lurrean ta nago, eguzkiaren argipean, eta 1998ra atzera egiten duten zortzi koardeno txiki irakurtzen, Goetheri buruzko esaldi baten bila: “Izarrak goian, landareak behean”. Pentsamendu hori Goetheren amarekin eta hark naturaren inguruan irakatsi zionarekin lotuta dago, eta era orokorragoan, jendea naturarekin harremanean etengabe bizi izanarekin.

Ez dut inoiz erreferentzia aurkitu, Interneten ikusitako zerbait baino ez da; baina horrek Goetheren egunkarira, *The Flight to Italy*, eramán ninduen (Kafkak ere bere egunkarian gomendatutakoa). Bertan, Goethek zakarki agur esan zion bizitza harroari, eta ezkutuan Italiara joan zen, bizitzan lehenengo aldiz. Hogeita hamazazpi urte zituen, eta bidaiá errebelazio eta sorkuntza berpizkunde erraldoia da. Landareak marraztu zituen, harkaitzetatik laginak jaso, eta tokiko jendearen gisan janzten hasi zen, ez nabarmentzeko eta haien ohiturak hobeto behatzeko gai izateko. G.-k klimaren inguruko txostenak jaso zituen: hodeiak eta ilunabar bikainak,

eta eurien teoria bat garatu zuen, “elastikotasunaren” kontzeptu bitxia jasotzen duena. Arkitektura behatu zuen, eta Palladiorengana zuen liluraren inguruan idatzi zuen. Italiako pinturari estimu handia zion, baina kristautasunaren “gai zentzugabe eta ergeletan” galtzen den jeinuaren eta talentuaren kontra egin zuen.

Egunkaria azkar eta era informalean idatzia dagoenez, erabat garaikidea dela iruditzen zaigu. Zaila da sinestea XVIII. mende bukaerako ahotsa dela. Dena ikasteaz gain, bere buruari ere intentsitatez begiratzen dio, eta liburuaren bukaera aldera, ezuste harrigarria aurkituko dugu: bere “gaixotasuna eta... erotasuna” aitortzen ditu eta baita isilean jasandako lotsa ere, lehenago Italiara joan ez izateagatik, artea eta arkitektura zuzenean ezagutzeko, bizitza guztian zehar liluratu baitzion. Erromatik bi eguneko distantziara, ez zuen jada lo egiteko arropa kentzen azkarrago iritsi ahal izateko, eta 1786ko urriaren 26an, ondorengo hau idatzi zuen: “...hurrengo igandean Erroman lo egingo dut, hogeita hamar urtez irrikan eta zain egon ondoren”.

Moyra Davey

Egunkari beroa bat-batean mutu geratuko da: “ezin dut ezer esan, soilik hemen nagoela... Soilik orain hasiko naizela bizitzen...”. Weimarreko bere lagunei honako hau idatzi zien: “Hemen nago, nire buruarekin bakean, eta, antza, nire bizitzarekin bakean”. Eta bere amoranteari, Charlotte von Steini: “Urteak eman nitzakeen hemen, askorik esan gabe”.

The Flight to Italy landarez eta laborez beteta dago, eta G.-k *jatorrizko landare* forma bat existitu izanaren inguruko teoria ere badu. Hala ere, aipatzen duen izar bakarra eguzkia da.

BENETAKOA

Orain, ezezagunetik idaztearen eta oharrak eta aldizkariak oinarritzat hartuz idaztearen arteko gatazka batean gaude. Beste leku batean, idazteko era ezberdinak argazkigintzako bi generorekin alderatu nituen: kalearen *vérité* ikuspegia, bizitza eta mugimendua beregana-tzen dituen, errepikatzeo aukera gutxirekin, eta horrekin alderatuta, estudioaren praktika kontrolatua, artistak arrisku gutxiago hartzen bertan eta inguru onargarriagoa eta malguagoa. Eta agian, arriskuaren eta kontrolaren arteko desberdintze hori beste behin inplizituki errepikatzen da Parisen 2008an bizi nintzela kritikari bati irratian entzun nion Godarden aipu

batean: “Filmak egin beharrean instalazioak egiten dituzten zinemagileak benetakoaren beldur dira”.

Phantom India zazpi orduko dokumentalean, Louis Mallek azpikontinente guztian zehar bidaiatu eta filma-tzen du. Ondoren, off ahotsean, kameraren bidegabeko sartzeko hori eta zuhurtzia falta aztertu eta horren inguruan hausnartzen du. Mallek ez du inoiz begirune gabezia horren sentipena gaudituko; baina filmatzen jarraituko du, orduz ordu, dokumentala berez denaren mugak gaudituko nahian, Indiari buruz eta bere buruari buruz zerbait ulertzeko ahaleginean. *Phantom India* filmaren zati handi bat dokumental gordina eta osoa da, baina badira ere auto-azterketa eta eztabaida biziko uneak. Adibidez, Mallek “bertan” egoteko ezintasuna deskribatzen duenean, kameraren aurrean gertatzen ari denaren “errealitatea” probatzeko.

Bizitza bere buruaren barruan dauka, eta batzuetan iraganean pentsatzen du, baina soilik etorkizunean hautemango den obraren esanahian harrapatuta dago batez ere. Egoera berri bakoitzerako, lehenbiziko joera memoriara eta azterketara jotzea da: eszena batek, hondartzan, egunsentian, duela hogeituroko beste bat gogorarazten dio, lehenengo filma

egiten ari zenean. “Denboraren hezletzat, denboraren esklabotzat” ikusten du Mallek bere egoera. Une zehatz batean, hark eta haren taldeak filmatzeari utziko diote. Soilik orduan orainarekin probatzen hasiko dira, hots, denboraren geldotasunarekin eta Mallek “benetakoa” deitzen duenarekin.

BUSTITA DAGOENA

Nire ustez, beste arazo bat Hezetik datorrena da, hau da, ospea galdu duen iragan baten alderdi zehatz batzuk kontatzearen etengabeko kezka, inoiz kontatzeko prest egongo ez nintzatekeen gauzak. Aurretik, premiazkoenetik idazten hastera bultzatu dut nire burua, baina orain arazoa da ezin diodala Hezeari buruz idazteari aurre egin. Hori ezkutatzean pentsatzen ari naiz, edo agian horrek bidea emango dio beste gauza bati.

Dokumentu hau paraleloan doa egunkarietan jasotako oharrez osatutako idatziarekin. Eta horrekin batera, neure buruarenganako kanibalismo sentipen deseroso dago. Dokumentu *honek*, liburua ez den arren, Marguerite Durasek deskribatutako oinarri baten arabera hasi nahi du: “Liburu batentzako gairik ez izatea, ideiarik ez izatea, liburu baten aurrean egotea da. Erabateko hutsunea. Ondorengo liburu bat. Idazketaren aurrean, bizirik eta

biluzik, gainditu beharreko gauza beldurgarria”. Frogatu nahi nuen, ia esperimentu baten modura, bi modutan idaztera; baina jada beste dokumentu bateko oharra erabiltzen hasi naiz...

Duras zainak irekitzen ari zen?

Bai eta ez. Botila irekitzen ari zen ere. Horrela igaroko zituen – idazten eta edaten – egunak eta gauak. Erresistentzia zeukan, Sontagek esan lukeen bezala. Eta ez zen Hezearen beldur.

Rainer Werner Fassbinderrek:

“Istorioan zenbat eta zintzoago murgildu, orduan eta interesgarriago izango da besteentzat”.

MARY

Mary Wollstonecraft, 1759an jaio zen, Goethe baino hamar urte geroago eta Claire nire ahizpa baino 200 lehenago, eta Hezea eta Lehorra zegoen. Haren zeruan izar distiratsua zen, eta emakumeen, haurren eta gizateriaren eskubideen lehenengotariko defendatzailea eta suharrenetarikoa izan zen, baita egiaren eta justiziaren defendatzaile ikasia ere: erradikala. Parisera joan zen, iraultzaren lekuko izateko, eta 1793ko izu odoltsuaren berri emateko biziraun zuen. Adimen gaitasun eta *savoir-faire* handiko emakumea, bere burua eta bere sei anaia-arrebak mantendu zituen idazteari esker.

Baina depresioa ere pairatzen zuen, eta Gilbert Imlay haren amoranteak bihotza apurtu zionean, laudanoa edan zuen. Berpizteko ahaleaginean, Imlayk Eskandinaviara bidaiatzeko lana eskaini zion haren negozio ilunetako bat iker zezan. Maryk onartu zuen, dirua behar zuelako eta Imlayrekin harremanetan jarraituz amaiera erromantiko positiboa lortzeko itxaropena zeukalako.

1795ean ozeano bidaia arriskutsua hasi zuen Fannyrekin, bere bi urteko alaba, eta frantziar mirabe batekin. Goethek Italiara egindako bidaietan bezala, Wollstonecraftek Imlayri eskutitzak idatzi zizkion bere behaketen eta Suediako, Norvegiako eta Danimarkako paisaiekin eta jendeekin izandako emozio erantzunen berri emateko. Haren larritasuna sotilki adierazten da eskutitzetan, baina batez ere kazetari baten begiekin islatzen eta berri ematen du bertakoen ohituren inguruan: lumaz egindako ohe biguna eta sakona, “hilobian hondoratzea” bezalakoa; franelazko kapa pisutsu eta osasungaitzetan bildutako haurrak; airerik gabeko etxeak, berogailuekin berotuta tximinien ordeztu, eta, bertan, Goetheren moduan, Maryk aireari buruz hitz egiteko “elastikotasunaren” kontzeptu arraroa aipatzen du. Noble batzuen momifikatutako aztarnak ikusi

ostean, bereizgarri duen haserre batekin erantzuten dio: “Gizakien petrifikazio horiek erakutsi zizkidatenean, atzera egin nuen, nazkak eta izuak hartuta. “Hautsa zara – pentsatu nuen – eta hauts bihurtuko zara...” Ingalaterrara itzuli ostean, Wollstonecraftek oso harrera ona izan zuen liburu batean bildu zituen bere eskutitzak: *Letters Written During a Short Residence in Sweden, Norway, and Denmark*. 1796an argitaratu zen, Barney nire semea jaio baino berrehun urte lehenago.

ALISON

Parisera iritsi eta gutxira, dardarati, *jet lag* delakoarekin eta loezinarekin, Alisoni, nire lagunik zaharrenari, ideia batzuk idazten lagunduko zidan galdetu nion. Jainkoari eskerrak, beti prest dago, eta ideien eta estrategien iturri da. Ni izututa eta nahastuta nengoen, hiri horretan mereziko zuen ezer egingo ez nuela konbentzizuta. Pilula bat hartu, eta edalontzi bat ardo edan nuen, Rivoli kaleko terraza hotzean, eta ondorengo hau esan nion: “1976an iritsi nintzen Parisera, batxilergoa amaitu berritan. Bakarrik nengoen, lur jota, aspertuta, ezjakintsu. Argal eta lodi nengoen, inolako kontrolik gabe ezeren gainean. Bere kulturaren zati izateko irrika ikaragarria zuen frankofiloa nintzen; baina galduta nengoen, “erromantikoa

denaren” inguruko nerabezaroko ideietan sartuta. Frantziako lagun batek sutsuki esan zidan: Erromantizismoa XIX. mendea da. Kito”. Quebeceko bi artista ezagutu nituen *Cité des Artseko* estudioetan. Jatorrak ziren, baina hotzak. Hogeita hamar urte beranduago, Parisen nago berriro, senarrarekin, seme batekin eta bizitza batekin. Estudio horietako bat dut. Argal nago. Dirua daukat. Esklerosi anizkoitza daukat”. Alisonen begiak argitu ziren: “*Hori* istorio perfektua da”. Aitzitik, ez dakit istorioak idazten. Iraganeko gertaera batzuk kontatzearen inguruan, Norman Mailerrek esan zuen: “prest egon behar duzu”. Baliteke inoiz ez egotea. Ateratako paragrafo batzuk, proiektu honen benetako motibazio direnak, orain *Pathography* etikapean bereizita dagoen dokumentu batean daude.

Zergatik denek euren istorioa kontatu nahi dute? Zergatik nire ikasleek “memoria irudikatzeaz” hitz egiten dute? Zergatik Amyk graduondoko eskolan bat-batean langile klasean dituen sustraiekin aurrez aurre aurkitzen du bere burua, ezegonkor, haurtzaroarekin obsesionatuta? Zergatik dago Jane bere iraganarekin oinazetsu eta amari beraren psikiararekin hitz egiteko eskatuz? Zergatik eman dut horrenbeste denbora Parisen, agorafobiko, gogoetatsu, bat-

bateko argi bortitzarekin argitzen diren haurtzaroko erreinuetan hondeatuz?

Isak Dinesenek: “Kontatzeko donaria joaten uzten gai izatea da... Pairamen guztiak jasan daitezke, istorio baten barruan kokatzen baditugu edo horiekin istorio bat kontatzen badugu”.

Neguko argi hotzaren azpian ohean eserita nago, berogailua txistuka, nire ohitura zaharra. Ondoren, eguzki-argia etorriko da, korronte bat bezala. Argi itsutzaile hori hartuko dut, gainazaldu eta beste guztia itzaliko du. Eta ondorengo honetan pentsatu: irudimenezko Paris benetakoa baino hobea da.

NEBA-ARREBAK

The Flight to Italy liburuaren amaieran, Goetheren bizitzan nagusi izan ziren pertsonen biografia motzak agertzen dira. Haren ama, Catharina Elisabeth von Goethe, babes handia eman zion emakume gisa deskribatzen du, eta Freuden aipu bat dago G.-ren inguruan: beraren amaren gogokoenaz zela, eta era horretan gailendu diren haurrek konfiantza eta argia beren bizitza osoan zehar mantentzen dutela. Horrek Freuden saiakera txiki batera eraman ninduen, *A Childhood Recollection*. Bertan, G.-k beraren biografian kontatzen duen oroitzapen goiztiar bat aztertzen du:

txikia zenean platerak leihotik botatzen zituen. Gertaerak zerbait misteriotsua izan zen Freudentzat, harik eta, haren metodoan ohikoa den bezala, antzeko istorioak entzuten hasi zen beraren gaixoen aldetik, eta teoria bat egiteari ekin zion. Leihotik gauzak botatzea haurrak sentitzen duen suminarekin eta jeloskortasunarekin lotuta dagoela, eta haur berri baten iritsieraren erantzuna dela. Susmo sendoa dut horrela erantzun nuela edo are indarkeria handiagoarekin nire bost neba-arreba gazteak jaiotzerakoan. Terapeuta batek behin esan zidan auto-barkamena egin behar nuela; baina Freuden hitzak behar izan nituen, ziurtatzeko nire jokaera ez zela haurtzaroko aberrazio kriminala. “Gain-jokaera” krudel horietako pasadizo bat ezabatu eta *Pathography* lanera baztertu dut.

Michael Hanekek: “Artistek ez dute psikiatrarik behar, beren arazoak lanen bidez konpon ditzaketelako”.

Baina, Freud alboratu dezakegu?

SHARON ETA GLORIA
Arratsaldean lo geratu nintzen, eta Sharon Hayesekin batera, lan bat amaituta dagoenean “hilarri bat modukoa” izateaz kepatzen ari nintzela amestu nuen. Gloria Naylorrek ondorengo hau dio *The Women of Brewster Place* bere liburuan:

“...benetan hilarri deitzen dudanaren liburuaren koordenatutako kopia lortu nuen, eta hilarri deitzen dut, hori islatzen duelako, nire esperientziatik gutxienez”.

Gauza soilik bizirik dago (eta hedaduraz ni ere soilik bizirik nago) prozesuan dagoen bitartean, eta ez dut inoiz ere jakin nola mantendu piztuta, mugimenduan. Gene tematiren batek motorra urpetzearekin mehatxatzen du beti, abiadura aldatzeko une erabakigarrian.

MARY ETA MARY

Goetheren lanak bezala, Wollstonecraftenak ere – bidaia batek gidatutako kontaketa – bultzada berezia eta auto-sortzailea ditu: bidaia bat, denboran eta espazioan egiten dituen joan-etorriekin, istorio bat kokatzeko bikaina izan daiteke. Hori eskutitz-egiturarekin konbinatu, eta modurik egokiena aurkituko duzu. *Letters* bildumak Eskandinaviara egindako bidaiaren emaitza zoriontsu bakarra izan ziren. Bere buruaz beste egiten saiatu eta bost hilabetera, Imlayk maitale bat zuela baieztatzerakoan, Maryk zubi batetik jauzi egin zuen, erorketa bizkortzeko soinekoa euriz bustita zuela. Ontzi-zain batek erreskatatu zuen, eta denbora gutxiz Imlayk kontsolatu zuen arren, handik gutxira betiko desagertu zen, Maryren eta Fannyren bizitzetatik.

Baina MW.-k William Godwinen laguna izateko zorzea izan zuen, eta gizon jakintsua zen hura. MW.-ren biografoaren arabera, Lyndall Gordonek gomendatu zion: “Atsekabetutako emakume batek bere zorientasuna eraikitzen saiatu behar du, eskura dituen material multzotik abiatuta”.

Urtebete geroago, 1797an, Godwinekin maiteminduta, ezkonduta eta haurdun, Maryk ozenki irakurri zituen, Williamekin batera, *Goetheren Werther gaztearen abenturak*. Hurrengo gauean, neska bat erditu zuen, Mary Shelley izango zena. Erditzea ez zen ondo joan, plazenta ez baitzen askatu, eta eskuak garbitu ez zituen mediku batek sabelean eskua sartu zion ateratzeko. Horrek infekzioa sortu zuen amaren esnean, eta artifizialki atera behar izan zioten. Berrehun urte ondoren, 1997an, erditu eta sei hilabetera, Ipar Amerikan zehar hegana egin nuen nire bularretatik esnea ateratzeko bonba elektrikoarekin. Hala ere, bitarteko hegazkina galdu nuen, eta nire helmugara hamabi ordu beranduago iritsi nintzen, bularrak ikaragarri hazita nituela. Hoteleko logelaren argazkia egin nuen, eta zenbait urte geroago, LTTR-n argitaratu zen, egunkari feminista eta queer bat. Orain, argazki hori Interneten dago, nire kontrolatik at.

MW. erditzean hil izanak badu ironia tragikoa hein batean, higie ne arruntaren aldeko defentsa ilustratua egiten baitzuen, eta baita haurren eta amen zaintzan esku ez hartzearena ere. Medikuez mesfidati, osasunean sinesten zuen, eta sen onean ere bai, sineskeriaz eta berritsukeriaz betetako garai batean.

EGUZKIA

Landareak, loreak, laboreak eta natura askotan agertzen dira bai *Letters* bai *The Flight* lanean; baina izarrak gutxiago. Izan ere, Wollstonecraft zein Goethe – iparraldeko bi pertsona, klima hotza eta euritsua jatorri dutenak –, askotan berotzen ziren eguzkiaren argiarekin beren eskutitzetan. Goethek bere lagunak liluratzen zituen Italiako oparotasun amaigabearekin (“zeru hauetan, ez diozu zure gorputzari egun guztian pentsarazi egin behar”), eta Eskandinavian, Wollstonecrafti dagokionez, haren eraginak ezinbestekoak dira sublimea gogora ekartzerakoan, Suediako eta Norvegiako kostalde harkaiztsuetan eta pasaia menditsuetan zehar nabaritzen dena.

Eguzkiaren presentzia beroa faktore garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe, biek bake pixka bat aurki zezaten: Goetherentzat, Erromara iritsi, eta ez zuenean idazkerarekin bere bizitza bikoizteko beharra sentitu

(“Hemen nago ... Soilik orain hasten naiz bizitzen ...”), eta Wollstonecraftentzat, natura haren gainetik inposatzen baita une askotan, baltsamoa edo ahitutako eta etsitako izpirituaren berritzea bezala. Itsasontzi batean esnatzerakoan, hitz hauekin agurtzen du egunsentia: “Nire bularra naturaren besoei ireki nion, eta nire arima haren egileraino igo zen...”. Bi hamarkada beranduago, Mary Shelley alabak Ginebrako Lakuaren ertzetik idatzi zuen: “Eguzkiak eztanda egiten duenean, Ingalaterran ezezaguna den distirarekin eta beroarekin egiten du”.

2004an, Needvillen, Texasen, asteroide bat Mary Wollstonecraft izenarekin bataiatu zuten (Planeta Txikien Zentroa 90481 Wollstonecraft Izendapena).

JAINKOSAK

Aaron Burr, 1816an, Estatu Batuetatik Ingalaterrara bisitatzea joan zitzaien, eta ondorengo horrela kalifikatu zituen Mary Wollstonecraften alabak, Fanny eta Mary eta Clara Mary Jane Clairmont haien ahizpaordea, garai horretan Jane izenez ezaguna eta ondoren, Claire gisa. Maryk – hamazazpi urtekoa – eta Percy Bysshe Shelleyk Frantziara ihes egin zuten Janekin. Ez zuten Fanny haiekin joatera gonbidatu, eta horrek ondorio

lazgarriak izan zituen. Byron laster *troupearen* kide izan zen, eta elkarrekin bizi izan zuten poesiaz, kantuz, bidaiaz eta maitasunez betetako idilioa, Shelleyren herentziatik ustiatu ahal izan zuten diru gutxiarekin. Oinez, asto baten gainean edo itsasontziz, Frantziako, Suitzako eta Alemaniako hainbat eskualdetatik bidaiatu zuten, eta talde egunkari bat idatzi zuten, ondoren *History of a Six Weeks' Tour* izenpean argitaratu zena. Ia berrehun urte geroago, liburu horren faksimile edizioa lortu nuen, New Delhin inprimatutakoa, eta, zalantzarik gabe Google Booksetik jaitsitakoa. Barrualdeak urrutiko oroitzapena gordetzen du jatorrizko tipografiarekin, baina azalak gorri kolore distiratsuko diseinua du, karaktere islamiarrekin apaindutakoa. Objektu erabat xarmangarria da, baita barruan gordetzen duen prosa ere.

Azkenik, Shelleytarrak Italian finkatu ziren, eta bertan idatzi zuten eta klasikoak, Rousseau eta Goethe irakurri zituzten, eta Janek musika eta hizkuntzak ikasi zituen. Erromari buruz, Maryk ondorengo hau adierazi zuen: “...horrenbesteko eragina du nigan, ezen hura ikusi aurretik nuen bizitza espazio zuria den, eta orain hasten naizela bizitzen ...”. Horrela zortzi urtez egon ziren, diru gutxiarekin, XIX.

mende hasierako ezkontza konbentzio zurrunei aurre egiten bizi diren marjinatu gisa. Talde horretan, tentsioa eta jeloskortasuna ere egon zen: Mary, haurdun eta gaixorik ia beti, berehala hasi zen Jane (orduan Claire) narritagarri aurkitzen. Dena dela, Claire bizkorra eta talentuduna zen, eta, batzuetan, haiengandik urruntzen zuten arren, Shelleytarren zirkuluaren zati garrantzitsu izaten jarraitu zuen. Mary eguzki irudi txikia erabiltzen hasi zen bere egunkarian, egun zehatzetan Clairek zuen presentzia adierazteko: ☀

JANE

Mary Wollstonecraften gurasoak, Eduardo eta Isabel, 1756an ezkondu ziren, eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Berrehun urte geroago, nire gurasoek, James eta Patricia, Ingalaterran ezagutu zuten elkar, eta 1956an ezkondu ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten ere, sei alaba eta seme bat, eta lehena Jane Elisabeth izan zen, 1957an.

Errehabilitazioan izandako egonaldia bultzatuta, nire ahizpak bere haur-tzaroko eta mendekotasunen inguruko memoria liburu idaztea erabaki zuen. Posta elektronikoa batean, ondorengo hau esan zidan: “Amaiera bat aurkitzeko prozesuan nago, baina orain 60.000 hitzeko zifrara iritsi naiz, liburu batean bihurtzeko asko. Orain,

noski, obra ia amaituta dago, *eta behin betiko gertatutakoaren benetako erregistroa ezarri dudala*, nolabaiteko zalantza sentitzen dut.”

MW.-k idatzi zuen “sinpatiaren gozagarria bizitzaren medikuntza [gisa]” kontzeptuaren inguruan, haurtzarotik Janek, pertsona sentibera eta enpatikoa, eta, zalantzarik gabe, homeopatia zale, ados egongo litzateke. Janek MW. gogorarazten nau alderdi askotan. Emakume oso indartsua eta atsegina da, hiru alaben ama eta medikuak eta botikak urrun mantentzen ditu; baina emozionalki ahula da, MW. batzuetan zenaren modura, depresiorako joerarekin eta portaera garratzarekin.

FANNY

Fanny, hasieran Shelleyren estimukoa zena, “maitasunaren udatik” kanpo geratu zen. Amaren malenkoniarako joera zuen, eta depresio-sentipen horri aurre egiten saiatu zen arren, “Malenkonia Soraiotasuna. Lozorroa. Umore txarra” gisa definitu zuten horren eraginpean egon zen. Fannyri buruz, honela idatzi zuen Mary Wollstonecraftek Eskandinaviako eskutitzetan, Fanny oraindik haurra zela: “Ez dakit zeri diodan beldur gehien, haren bihotza bere printzipioengatik sakrifikatu

behar izatea edo printzipioak bihotzarengatik”. XIX. mendeko baliabiderik gabeko emakume izateari amore eman zion. Zama izatearen beldur, Fannyk, amak egin bezala, laudanoa edan zuen; baina hark ez bezala, Fanny arrakastatsu izan zen.

Mary gaztearen zorientasuna Shelleyrekin ez zuen asko iraun; izan ere, heriotza maiztasun asaldagarriarekin agertzen hasi baitzen. Haren lau haurdunaldietatik, soilik batek, Percy Florence, biziraun zuen. Claire eta Byronen alaba, Allegra, harengandik bortizki banandu zuen aitak, eta lau urte zituela hil zen, Italiako komentu batean. Lehenago, Clairek atsekabetuta idatzi zuen bere egunkarian, Allegra berreskuratzea “bizitzaren erraztasun berora itzultzea izango zela, hilobiaren hotzean eta zurruntasunean egon ostean”. Harriet, Shelleyren lehenengo emaztea, ito egin zen oso haurdun zegoenean, eta Maryrekin zortzi urteko harremanaren ostean, Shelley bera ito egin zen nabigazio istripu batean Speziako Golkoan, Pisatik hurbil, Edward Williams haren lagun minarekin. Byron Greziako independentziaren gudan hil zen, bi urte geroago.

JAMES ETA PATRICIA
1975ean, nire aita James, berrogeita bost urtekoa, gure etxeko teilatutik

erori zen, abuztuko larunbat goiz batean, eta ez zuen inoiz konortea berreskuratu. Nik hamazazpi urte bete berri nituen, Mary Wollstonecraft Godwinek zuen adin bera, Frantziara ihes egin zuenean Percy Bysshe Shelleyrekin eta Jane Clairmontekin. Nire ama, Patricia, gure etxeko goiko solairura bizitzera joan zen, eta, ondoren, benetako infernua sortu zen. Davey neskek ez zuten poesiarik idazten, ez eta grekoa eta latina ikasten edo ugaltzen ere. David Bowie, Roxy Music eta The Clash entzuten genuen, eta droga gehiegi hartzen genituen. Kazetaria zen lagun batek nire amari galdetu zionean garai horretako gure bizitza sexual aktiboari buruz, nire amak tristeziak erantzun zuen: “gutxiago axolako litzaidake ondo pasatu dutela usteko banu”. Une ezberdina izan zen, eta matxinada mota ezberdina. Hala ere, askok gogoan hartu beharreko indar femenino gisa ikusten gintuzten: ez jainkosak, baizik eta “Amazonak”. Eta hori da Ottawan eta Montrealen, 1980. urtearen inguruan, egindako erretratu sortan azaldu nahi izan dudana. “Les jeunes filles en fleur” izan zen kazetari lagun horrek erabili zuen esamoldea gutariko batzuk deskribatzeko; baina hori geroago etorri zen, pixka bat egonkortu ginenean.

CLAIRE ETA KATE

Claire Davey, txikia eta gogorra, eta puzten eta husten ez zen bakarra, ez zen inoiz ez substantzia toxikoen edo alkoholaren eraginpean erori. Eta ez zuen inoiz gizonen besoengana bere burua bota, bere ahizpetariko batzuk egin zuten bezala, eta Claire Clairmontek Byronekin egin bezala. Izaera lasaikoa zen, eta bidaiatu eta ikasi zuen. Gaur egun, filosofiako eta yogako irakaslea da bigarren hezkuntzako Torontoko eskola batean. Kate urte eta erdi beranduago jaio zen, 1961an, Henry Mary Wollstonecraften anaia baino berrehun urte geroago, alegia. Jaia maite zuen neskak, eta ez zuen beldurrik, konortea galdu arte edanez eta pilulak har zitzakeen. Kate azkarra eta sentibera zen, eta ez zuen inoiz ez normaltasun gisa defini dezakeguna “berreskuratu”, hainbat errehabilitazio zentrotan egon ostean. Nire amaren apaletan zeuden liburu guztiak irakurri zituen, eta etxea kaletik jasotzen zituen animaliaz bete zuen. Jaso zituen lehenengo bost katuetako eta lau txakurretako batzuk jada hilik daude; baina usainek jarraitzen dute, horien oroimena mantentzeko. Esaterako, Candy, hemeretzi urtekoa, itsua eta txizari eutsi ezin ziona, edo Duke, atsegin eta inozoa, oin desitxuratuak zituena eta erreserba batean aurkitu zuena.

CLAIRE

Shelleyren segizioaren artean, soilik Mary, Percy semea, eta Claire Clairmont iritsi ziren heldutasunera. Taldea desegiterakoan, Claire bere anaiarekin elkartu zen Vienan, eta irakasle gisa hasi zen lanean; baina lanetik bota zuten, gaztaroan zehar izandako eskandaluengatik. Moskura emigratu behar izan zuen, eta, bertan, etxeirakasle bilakatu. Haren egunkaria literatura dokumentu sakona da, eta mende bat beranduago argitaratu zen. Jada edadetua zenean, azkenik Firenzen finkatu zen, Paola bere ilobarekin, eta Henry Jamesen *Asperneko paperak* istorioaren eredu bihurtu zen.

MARY ETA PERCY

Alargun, Mary Shelley bere aitaorde tirano eta kontserbatzailearen menpe geratu zen. Ez zuen bere semearen dohain poetikoa inoiz ez onartu, ezta Maryrekin ezkondu izana ere. Patriarkak debekatu egin zuen Shelleyren poesia argitaratzea edo hari buruz idaztea, familiaren lotsa ekidite aldera, eta Mary behartuta egon zen, bere semearen eta herentziaren hobe beharrez, bizimodu konbentzionala eramatera, diru kantitate txikiak jasoz. Shelley urte askoz bizitzen jarraitzen zuen, eta hura hiltzeko itxaropen gutxi zituen.

Muriel Sparken arabera, Percy Florencek ez zuen bere gurasoen literatura edo arte dohainik jaso, eta Europan zehar amarekin bidaiatzen ari zen bitartean, museoak bisitatzeari uko egin zion. Maryrentzako etsipena izan zen, eta beranduago, Sparkek “gaitasun flematikoak” izendatu zituenak estimatzera iritsi zen. Percy “leialki eta zoritxa-rrez haren (Maryren) ondoan jarraitu zuen, haren zahartzaroa mantentzeko”. Jane Gordonekin ezkondu zen, emakume atsegina, Maryren lagun eta zaintzaile izan zena azken gaixotasunean zehar, (berrogeita hamabi urte zituela). Percyk eta Janek ez zuten seme-alabarik izan.

BARNEY

Hamahiru urte ditu, eta hark ere ez ditu museoak ere gustuko, eta berehala lo egiteko gogoak sartzen zitzaizkiola esaten du. Esan zidan: “Eguna pasatzeko modu bikaina izango litzateke aireportura autoz joatea, eta, bertan, hegazkinak lurreratzen eta aireratzen ikustea”.

TAUTOLOGIA

Horren esanahia Baudelaireren bidez eta Barthesetik abiatuzikasi nuen: “H-a (haxixa) hartzen dut, aske izateko. Baina H-a hartzeko, aurretik aske izan behar dut”. Eta Alejandra Pizarnikengandik

ere ikasi nuen: “Ez jateko, zoriontsu izan behar dut. Eta ezin dut zoriontsu izan, lodi baldin banago”. Nire nerabezaroaren laburpenetik oso hurbil dago hori.

HOMEOPATIA

2010eko azaroan, Montrealera joan nintzen Saine Doktoarearekin elkartzeko, Jane nire ahizpak gomendatutako homeopata ospetsuarekin. Haren aitak lehenago egin bezala, esklerosi anizkoi-tza zuten pertsona asko tratatu zituen. Harekin eseri nintzen Dickensen estiloa zuen estudioan: liburu eta paper pilaz inguratuta, eta zenbait busto markotan sartuta, haren aurrekoenak, zalantzarik gabe, zientzia arraro eta mistiko honen aurkitzaileak, hain zuzen ere. Hiru ordu eta erdiz elkarriketatatu ninduen, nire sintomen, ansietatearen, beldurren eta ametsen inguruan. Oinak hoztuta nituela ikusi, eta sua piztu zuen, haritz egurrarekin. “Nola sentitzen zara pertsona behartsu bat ikusten duzunean? Batetik hamarrera, zenbat beldur diozu pobreziari, minbiziari, heriotzari? Nola sentitzen zara zure semearekin zaudenean eta zure senarra logelan sartzen denean?” Eta horrela, bata bestearen segidan. “Badago zuri buruz kontatu ez didazun zerbait?”. Ahal izan nuena kontatu nion, baita *Pathographyren* txar eta lotsagarri

batzuk ere (egin behar nuelako). Dena dela, elkarrizketa luzea nekagarria izan zen, eta zatikatutako nire istorioa, nahiko laua eta monotonoa. Dena entzun zuen inolako iritzirik eman gabe, baina jakin-min handiarekin, emozioarekin ia.

Azterketa oftalmologo batek begiak begiratu izan balizkit bezala garatu zen, atzera eta aurrera, betaurrekoekin, edo, oraingoan, galdera mordoarekin, era zirkularrean eta errepikakorrean, beti eremu beraren inguruan. Zoritik eta subjektibotik edozer ezabatzeko diseinatuta zegoen, diagnosis sendagai batera murrizteko helburuarekin. Aitzitik, nire kasuan, ezin izan zuen. Ezohikoa zela esan zuen, eta bi antidotoren artean zalantzan egon zen: agian nire gurasoen eragina indartsuegia zen, menperatzailegia. Beirazko bi flasko txikirekin atera nintzen handik. Kointzidentzia balitz bezala, substantzia bakoitza argazkintzarekin lotuta zegoen: sepia, argazkien tonua tintatzeko erabiltzen den kolorea, eta *lycopodium*, bonbillen flash zaharrak lehertzeko erabiltzen den fosforo hautsaren osagaia.

GOIAN IZARRAK

Gauetz autoan, begiak lehor ditudala, betaurrekoak kentzen ditut: argiak eta kale argiak kolore gorriko, horiko

eta berdeko eztanda erraldoi bihurtzen dira. Su artifizialen erakustaldi txikia da. Fokuratu egiten ditut, magia horren parte izateko.

IZATEA

“Jendea alboratzea da argazkigintzan ukorik ezinezkoena”, idatzi zuen Walter Benjaminek. Hala ere, uzte hori ez da hain zuzen ere nire argazkietan gertatuko zena hurrengo hamar urteetan, 1984tik aurrera, nire gaiak nire liburutegiko hautsa edo nire ohe azpiko ikuspegia baino bihurtu ez ziren arte. “Lapurtutako irudiaren” pisua, Louis Mallek esan zuen bezala, nire uko egitearekin zerikusia zuen; baina baita itzulunguru biografiko baten mailakako iragazkiarekin ere, agian nire istorioa kontatzeko egungo zuhurtziarekin lotutakoa (*Pathography*).

Nik ere substantzia gehiegi irentsi nituen bi edo hiru hamarkadatan zehar, eta horren emaitzetako bat da ezin dudala Durasen “hutsune mugagabeari” buruz planteatu dudana analogien jarraipena egin, ez eta *vérité* delakoaren bat-bateko izaerarena ere, saiakera idazketaren (aldizkariena) eta eszenaratze fotografikoaren artean dagoena. Eta zer da “benetako” gisa ulertzen dena Godarden (“Instalazioak egiten dituzten zinemagileak benetakoaren beldur dira”) eta Louis

Malleren adierazpenetan? Godardentzat, benetakoak zerikusia du denboran oinarritzen diren komunikabideen borroka eta arriskuarekin, modara ez dagoen modu batean, inolako osagarririk onartu gabe. Mallek terminoa erabiltzen du Indian filmatzeari uzten dionean lortzen duen “izatearen” egoera deskribatzeko: nolabaiteko bake existentziala sentitzea da, zerbait egiten egoteko beharretik aske izatea. Hala ere, soilik sentsazio hori goza dezake, horretarako oso gogor lan egin duelako.

BERDEA ETA HEZEA

Orain dela lau urte, ondorengo hau idatzi nuen: “Ospitalean, esteroideekin, nire bizitzan lehenengo aldiz soilik “izan” naitekeenaren sentsazioa daukat. Ez dut ahalegin gehiagorik egin behar zerbait egiteko, zerbait erakusteko. Ohean eseri naiteke eta izan”.

Ohean egiten nuen gauzetariko bat nire ordenagailuan Fassbinderren filma ikustea zen, *In a Year of Thirteen Moons*. Filma sekuentzia luze bat da Roxy Musicen *Song for Europe* kantarekin, eta, geroago, obsesiboki entzun izan dut kanta hori, “izatearen” egoera gogorarazten zidalako”.

Virginia Woolfentzako “izatea” idaztea zen, eta “ez izatea” beste guztia. Dena dela, biak gauza bera izan zitezkeela esan zuen. Gregg Bordowitzek,

Imagevirus liburuan, William Burroughs deskribatzen du, mozkortuta, haren zapata zortzi orduz begiratzen, eta horrek azidoa hartu nuen lehenengo aldia ekarri zidan gogora. Laku ez oso sakon batean, orduak eman nituenean eserita, ura nire behatzetatik nola igarotzen zen begiratu, eta pentsatuz ezer ez zela inoiz hori baino hobe izango. Urtetan zehar, berriro ere sentsazio horretatik gertu egon naiz, orokorrean urak airea bustitzen duen leku berdeetan: Ingalaterran, ubideek zeharkatzen duten zelai zingiratsu batean; Provincetowneko penintsula txiki eta estuan, pinuek lurra emankortzen duten lur horretan, udazkenean eta neguan. Airearen “elastikotasunaren” inguruko zerbaitek aukera ematen dit ezohiko grabitate ezan sartzeko, ongizate sentimendu sakona eta arraroa.

Baliteke, bidaia batean gertatzen faktoreek ere, hau da, joan-etorriak eta nekeak, horretara laguntzea, Stendhal sindromearekin batera, 1817an Firenzen jatorria izan zuena. Stendhalen fenomeno hori behatu zuen Italian, Claire Clairmont eta Shelleytarrak Erromatik egindako gaueko ibilaldi horietan Koliseoko aztarnetara igo baino urtebete lehenago. Goethe, Mary Wollstonecraft eta Shelley, guztiak ziren nekatutako bidaiariak: MW erditu berria zegoen, eta Mary, haren alaba,

azken bost urteetan zehar ia beti haurdun egon zen. Biek haur txikiak eramaten zituzten soinean, eta leher eginda zeuden. 1997. urte hasieran, lo gabeziarekin eta nire gorputza erditu ondoko zauri bihurtuta, Provincetowneko elurtutako basoetatik nenbilen, Barney nire semea bularrari lotuta nuela. Kosta ala kosta mugitu beharra neukan, nire burua asaldatuko zuen zerbait behar nuen.

SEPIA EGUNAK

Mary Shelley 1851ean hil zen, eta Claire Clairmont, 1879an. Aitzitik, ez dirudi haien argazkirik dagoenik, ez gutxienez sarean. Badago Percy Florence Shelleyren argazki obalatu bat, jada adineko gizona zenean: Freudekin antza du.

Argazkigintzaren Historia Txikia saiakeran, Walter Benjaminek Goethe aipatzen du, August Sander dela eta: “Badago enpirismo samur bat, eta objektuarekin hain modu sakonean harremanetan jartzen da, ezen benetako teoria bilakatzen den”. Mary Wollstonecraft eta Goethe argazkigintza sortu au-rretik bizi izan ziren, Goethe zazpi urte lehenago soilik. Bidaian idazkiek argazkien bizitasuna eta naturaltasuna daukate, eta Goetheren esaldiek eta zirribo-rroak, bereziki, erabat garaikide egiten zaizkigu. Ez da gehiegikeria pentsatzea Goethek, bere buru

zientifikoarekin, jaiotzear zegoen teknologia aurreikusi izana: “airean” zegoen, azken finean, 1839 baino askoz lehenago.

Goethek “egiairen teoria” defendatu zuela eta haren ezagutza bidea izan zela egiaztatzen duen frogarik agerikoena da hamarkada askotan zehar argazkigintzarekiko izan zuen promesa, agian ehun eta hogeita hamar urtez iraun zuena, 1970eko hamarkadaraino zenbatzen badugu. Eta orduan hasi nintzen argazkiak ateratzen, teoriak argazkigintzaren egiarako asmoa desegiten zuen unean. “Besteen berbaldiaren” une hori igaro da edo lekualdatu da; baina egia da nigan eragina izan zuela, eta lan egiteko nire modua betiko aldatu zuela.

Orain dela lau urte “izateari” buruz idatzi nuenean, esteroideen eragin indartsu baina beherakorraren pean nengoan. Orain, lo eginarazten didaten botikak hartzen ditut. Baina gaur goizean goiz esnatu naiz, lerro hauek idazteko ideiarekin, eta apartamenduen eraikin erraldoian urruntasunean islatzen den eguzkiari argazkia ateratzeko, hain zuzen ere. Esna goizeko zazpitan, aspaldian ez bezala. Eraikin distiratsu baten argazkia atera dut, ohitura zaharra dut hori, eguzkiarekin esnatzen ohi nintzenekoa.

Moyra Davey (1958, Toronto) artista, argazkilaria eta idazlea da, eta Orchard galeriaren sortzaileetako bat, talde-proiektua dena (2005-2008). Arrakasta handiz argitaratu du *The Problem of Reading* (Documents Books, 2003), eta *Mother Reader Essential Writings on Motherhood* argitalpenaren editorea da (Seven Stories Press, 2001). Berriki, Walter Benjaminen eskutizetan jarri du interesa, eta baita *My Necropolis* (2009) bideoan, Pariseko hilerrietan bideoan zizelkatuta dauden liburuak erakutsi ditu. Egiten dituen argazkiak hedatzeko, "aire-eskutitzen" forma erabili du.

Grapekin koadernatutako 16 orrialdeko liburuxka hau *The Social Life of the Book* proiektuaren **bigarren** zatia da – jatorrizk testuen harpidedunentzako hiru hileko seriea, idazleen, artisten, editoreen, diseinugileen, liburu-saltzaileen eta abarren hausnarketekin – gaur egungo irakurketari, diseinuari, argitalpenari eta liburuen banaketari buruz.

Hurrengo zenbakia:

Edizioaren zuzendaritza: castillo/corrales
Diseinua: Will Holder.
Itzulpena: 11 itzulpen
Ale kopurua: 100

Lege gordailua:
2011ko iraila
Centro Cultural Montehermoso
Kulturunea
Fray Zacarías Martínez 2,
01001. Vitoria-Gasteiz
www.montehermoso.net

The Social Life of the Book proiektua hauen arteko lankidetzan egindako proiektua da: castillo/corrales, Gasteizko Montehermoso Kulturunea (SP), De Vleeshal Middelburg (NL), eta Bordeleko Arte Ederren Eskola (F).

